

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Arbizu*



Aurkibidea

## Udalerria: Arbizu

### Sarrera



Sakana eskualdeko udalerria. Herriko hizkera Sakanako ekialdean dauden beste herrien multzo berekoa ds. Gaur egun, arbizuarren %80tik gora euskalduna da, eta hori dela-eta udalerria UEMA elkartean sarturik dago. (Argazkia guaix.eus-etik hartua)

- **Biztanleak:** 1.060
- **Euskaldunak:** %82,96

### Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **44**
- Zintak: **42**
- Pasarteak: **756**
- Transkribatutakoak: **14**
- Audioak: **4**
- Bideoak: **285**

### Proiektuak

- Arbizuko ahotsak
- Dialektologia-EHU
- Euskalkiak.eus
- Fondo partikularrak
- Gasteizko Euskararen Ahotsak
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

## Hizlariak



**Felisa**

**Martina** - (1927)

Umetako jolasen inguruko azalpenak ematen ditu.

**Nikasias** -



**Martin Andueza Mendinueta (1926)**

Barraneko etxean jaio zen 1926an. Nekazaritzan aritutakoa, bere aitak ongarri kimikoak sartu zituen herrian. Geroago industrian egin zuen lan.



**Benito Araña Mendinueta (1927)**

Juananeko etxean jaioa 1927an. Bere aita ferratzailea zen, baina baita artzaina ere. Artzaintzatik bizi izan ziren, sorotan ere tokatu bazitzairen ere. Bitoria Iriarterekin ezkondu zen eta Juananeko etxean bizi zen gaztagintzatik.



**Katalina Araña Mendinueta (1921-2020)**

Kapitxeko etxean jaio zen 1921ean. Artzaintza munduan txikitatik ibilia, ez zen kanpora joan zerbitzatzera, etxean lagundu behar izan baitzuen. Bere senar Elias Larrearekin batera etxe berri bat eraiki zuen.




**Maria Jesus Araña Mendinueta (1929)**

Juananeko etxean jaio zen 1929an. Arbixoneko etxera ezkondu zen eta bertan bizi da oraindik ere. Zerbitzatzan ibilia da, eta oso ondo moldatzen da aspaldiko kontuak kontatzen.



**Juanita Berastegi Berastegi (1919-2009)**

Juanitoren etxean jaio zen 1919an, bere aitonak eraikitako ostatuan. 14 urtera arte eskolan ibili ostean, ostatuan egin zuen lan, eta bertan geratu zen zaharrena baitzen. Senarrak ostatuan, bideetan eta nekazalgoan egin zuen lan.



**Martin Berastegi Berastegi (1920)**

Juanitoren etxean jaio zen 1920an. Luzaroan mendian idiekin egin zuen lan garraioan, eta geroago kamioiarekin. Jaustaren etxera ezkondu zen eta han bizi da alabarekin.



#### **Begoña Berastegi Lakuntza (1934)**

Errotazar etxean jaio zen 1934an. Herriko postaria izan zen luzaroan, eta Arbizun bizi da.



#### **Josefina Berastegi Leiza (1926)**

Ezkerraren etxean jaio zen 1926an, denda eta ostatua zuten. Bertan lan egindakoa eta ezkonduetakoa da.



#### **Juan Berastegi Urkia (1930)**

Mariñelarena etxean jaio zen 1930ean. Bere etxea erretzen ikusi zuen. Nekazaritzan eta industrian aritua, etxea berreraiki eta bertan bizi da bere emazte eta alabarekin batera.



#### **Angeles Gartziandia Balda (1929-2009)**

Goiko Leixkoneko etxean jaio zen. Zerbitzatzen ibili zen Gipuzkoan eta Altsasun. Remigio Berastegirekin ezkondu zen eta taberna ireki zuten. 2009an hil zen jada alargun zela.



#### **Sebastián Goñi Lakuntza (1927)**

Joxeren etxean jaio zen 1927an. Arbizun bizi izan da eta bertan ezkondu zen. Xelebrekeria ugari gordetzen ditu bere memoria paregabearen.

#### **Isabel Goñi Razkin (1931)**

Leixkoneko etxean jaio zen 1931n.

#### **Resu Ijorra Larraza (1925)**



Kondiarena etxean jaio zen 1925ean. Betidanik etxean ibilia lanean, kanpora irten zen zerbitzatzera neska gehienak bezalaxe. Ostatuko etxera ezkondu zen, eta bertan bizi izan da ordutik senarrarekin. Elkarrizketan hainbat kontu kontatu zituzten senarrak eta biek.

### **Juan Lakuntza Castejón (1925)**



Ferriñoneko etxean jaio zen 1925ean. Han bizi da oraindik bere emaztearekin. Lurretik bizi izan da beti: soroa zuten eta bertan egin zuen lan. Taberna ireki zuten herriko alondegian.

### **Rafael Lakuntza Castejón (1928)**



Erriñoneko etxean jaio zen 1928an. Lurretik bizi izan ziren. Soro nahikoa zuten eta bertan lan egin zuen. Taberna bat ireki zuen herriko alondegian bere anaiarekin batera. Grabazioko unean bere arreba Elisarekin bizi zen.

### **Ramona Larraza Araña (1920)**



Fentxoren etxean jaio zen 1920an, bere amaren etxean. Gerora bere aita Lukasek etxe berria eraiki zuen, eta "Lukasena" izenaz ezagutu zen. Bere aitak zerrategia zuen. Ramona Pepe Arbizurekin ezkondu zen: hura Argentinan jaiotakoa zen, baina berez arbizuarra zen. Harategia jarri zuten herrian.

### **Bittorio Lazkoz Berastegi (1922)**




Goiko Juananeko etxean jaio zen 1922an. Familiak ez zuen lur askorik eta ahuntzaina izatea tokatu zitzaion. Askotan besteentzat egin behar izan zuen lan. Bere ilobaren etxean bizi da.

### **Josefina Leiza Reparaz (1931)**



Kantonaneko etxean jaio zen 1931n. Herrian hazi zen. Bere familiak denda zuen, eta geroago arrandegia jarri zuen.

### **Josefina Lizarraga Mendinueta (1927)**



Boniñorenean jaio zen 1927an. Ubeldeko etxea izandakoa erosi eta bertan bizi izan zen bere gurasoekin; hara ezkondu zen Esteban. Lurra lantzetik bizi izan ziren luzaroan.

### **Jose Maria Lizarraga Razkin (1912-2009)**



Lizarragabengoan jaio zen 1912an. Handik Arbizura ezkondu zen Atsonekoa etxera. Artzaintzan asko ibilia, Diputazioarentzat ere egin zuen lan zuhaitzak landatzen. 2009an hil zen eta bere emaztea, Elvira Flores, bizi da oraindik.



### **Simon Maiza Mendinueta (1928)**


Aitzaaneko etxean jaio zen. Kultura handiko familiakoa, eskolan ongi ikasi zuen. Garraioan ibili zen kamioiarekin.

### **Juan Mendinueta Lazkoz (1922)**



Ostatukoa etxean jaio zen 1922an. Gaztetan Pasaian ibili zen bi urtez lanean, eta gerora Otxagabian eta Iratin basomutil. Azkenik etxean bertan geratu zen lurra lantzeko. Bere emazteari ere, Resu Ijorra, egin zitzaion elkarrizketa.

### **Esteban Mendinueta Mendinueta (1925)**



Esteban Ixelaneko etxean jaio zen 1925ean, eta emaztearen etxera ezkondu zen, Ubeldeko etxera. Lurra lantzetik bizi izan dira luzaroan.

### **Migel Mendinueta Mendinueta (1922)**




Ixelaneko etxean jaio zen 1922an. Bere familia artzaintzatik bizi zen gehienbat. Gaztetatik mendian ibilia ardiekin, soroan aritzea ere tokatu zitzaion. Oraindik Arbizun bizi da bere alabaren etxean.

### **Venancio Olasagarre Estomba (1927)**




Milikonea etxean jaio zen 1927an. Ama umetan hil zitzaien; aita herriko osatzailea zen. Gurasoak hiltzean umeordeko bidali zuten Iruñerrira. Gerora handik itzuli zen, baina itsasora lanera alde egin zuen. Ternuan aritu zen bakailaotan; bere arreba, berriz, Estatu Batuetan eta Kanadan ibili zen Espainiako kontsularen zerbitzari gisa. Venancio itzuli zenean, Arbizun ezkondu zen. Gaur egun alabarekin bizi da, alarguna baita.

### **Maria Josefa Olejua Irurzun (1920)**



Saastiñena edo Genaroren etxea izeneko etxean jaio zen 1920an. Bere familia herriko jantzienetarikoa zen. Sagardoa egiten zuten, eta argizaria ere bai. Bere Aitana pertsonaia ezaguna izan zen bailaran. Hezkuntza ona jaso zuen eta etxean ezkondu zen. Bere anaia Ricardo fusilatu egin zuten abertzale izateagatik.

### **Puri Petriati Goñi (1925-2017)**



Anttonena etxean jaio zen 1925ean, herriaren behealdean, Bentatik gertu. Bere familia errepideko lanetan aritu zen, baita nekazalgoan ere. Motzarena etxera ezkondu zen. Elkarrizketa garaian alarguna zen.

### **Garbiñe Petriati Ijorra (1962)**



Garbiñe Petriati, Arbizun jaio zen 1962an. Euskara irakaslea da eta euskalgintzako eragilea. 1986an hasi zen euskara irakasle Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundean. 2010eko maiatza eta 2019ko iraila bitartean Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren zuzendaria izan zen eta gaur egun bertako teknikari lanetan dabil.

### **Martin Razkin**

Arbizun jaioa. Sei anaia ziren eta gaztetatik lana egin beharra tokatu zitzairen. Okin lanetan hasi zen eta han ematen zioten ogia ongi etortzen zitzaion familiarako. Gero Gipuzkoara joan zen lanera bi urterako eta handik itzulitakoan basoan hasi zen lanean. Frantzian ere ibili zen garai batean lanean, eta hona itzultzean txofer hasi zen. Ezkondu ostean Iruñera joan zen bizitzera.

### **Manuel Razkin Flores (1926)**



Batistaren etxean jaio zen 1926an. Nekazalgoan aritua, geroago kamioiarekin ere lan egin zuen garraioan. Semearekin bizi da etxe berean.

### **Juan Razkin Iriarte**

Nekazaritzan eta hamaika ogibidetan ibilia: lantegietan, trenbidean, bake-epaile, bizargin, txerri-hiltzaile...

### **Micaela Razkin Iriarte (1932)**



Beheko Argiñaren etxean jaio zen 1932an. Herrian nekazalgoan aritutakoa da, eta artzaintzak garrantzi nabarmena izan du beregan. Gaur egun Beheko Argiñaren etxean bizi da Miguel Jose Razkinekin. Mitologiak badakizki zenbait istorio.

### **Felisa Razkin Lakuntza (1921)**



Ubeldeko etxean jaio zen 1921ean. Bere aitak etxe berri bat eraiki zuen, izen berekoa. Bertan bizi izan zen, gaztetan zerbitzatzera irten behar izan zuen arte. Geroago, bere ahizpa hiltzean, bere koinatuarekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuen, ahizparen semearekin hezia. Etxe berean bizi da oraindik.

### **Maria Razkin Leiza**



Arbizun jaio eta bertan ibili zen eskolan. Ama gazterik hil zitzaion, 38 urte zituela, eta berak ez zuen ezagutu. Bai soroan, bai etxean lan asko egin behar izaten zuen. Senarra RENFEko langileburua zen. 33 urte zituenean ezkondu ziren.

### **Pilar Razkin Leiza (1931)**



Loriarena etxean jaio zen 1931n, anaia gutxi zirenez, etxean gizonen lanak egitea tokatu zitzaion. Alabarekin bizi da etxe berean. Arbizuko euskalkia oso ongi gorde du.

### **Felix Razkin Mendinueta (1947)**

1947an jaio zen Arbizun, etxean bertan. Lau senidetan hirugarrena da bera. Aita bizargina zen, Arbizukoa, baina hamaika lanetan aritutakoa. Zortzi urterekin hasi zen herriko eskolan, eta bederatzi urterekin Oñatira bidali zuten ikastera, agustindarregana fraidegai, osaba bat baitzuen bertan. 1969an Teologia fakultatera joan zen, Gasteizera, beste fraidegai batzuekin batera, Eusebio Osa apaiza taldeburu zutela. Gasteizen euskara irakasten hasi zen, Manuel Iradier taldean eta Pako tabernan. Juan Bautista Gamiz irakasle taldea sortu zuten gero, Gasteizko AEK-ren hazia izango zena. Araotzen (Oñati) egin zuten barnetegian euskara irakasteagatik atxilotu egin zuten. Olabide ikastolaren sorreran ere parte hartu zuen. Hiru lantegitan ibili zen lanean: Tximist, Michelin eta BH. Langile mugimenduan murgildu zen, eta orduko grebak eta 1976ko martxoaren 3ko sarraskia gertutik ezagutu zituen. 38 urte zituela, Euskal Filologia ikasketak egin zituen. Osakidetzako euskara zerbitzuan plaza lortu, eta bertan jubilatzen. Arbizuko euskara mantendu du eta hika mintzatzeko ohitura dauka.




### **Jesus Razkin Mendinueta (1950)**

Arbizun jaioa.



### **Miguel Jose Razkin Reparaz (1929)**

Kataliñena etxean jaio zen 1929an. Herrian nekazalgoan aritutakoa da. Artzaintzak garrantzi nabarmena izan du beregan. Gaur egun Beheko Argiñaren etxean bizi da Micaela Razkinekin.



### **Jose Maria Reparaz Maiza (1922-2008)**

Ixurkoneko etxean jaio zen 1922an. Bere anaia zaharrenak gerran ibili ziren, eta horren ondorioz asko jardun zuen gaztetan nekazalgoan etxean. Pellorena estera ezkondu zen. Okina izan zen; geroago burdinaren fundizioan jardun zuen modelatzen, eta aldi berean nekazalgoan eta behiak hazten aritu zen erretiratu zen arte. Lau seme izan zituen, 1979an alargundu zen bere emazte Maria Ines Razkin hiltzean. Gerora, baratze lanetan aritu zen 2008an hil zen arte.



### Jose txo Reparaz Maiza (1927)



Ixurkoneko etxean jaio zen 1927an. Nekazaritzan egin zuen lan luzaroan, eta industrian ere ibili zen. Gerora untxi-granja jarri zuen, eta oraindik ere bertatik bizi da semeekin. Arbizon bizi da.



### Agustin Reparaz Urkia (1932)

Maanttoniren etxean jaio zen 1932an. Herrian hazi zen, eta bizikletak konpontzen ibilitakoa da. Arbizon bizi da.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Ohiturak eta bizimodua

#### 1.1. Haurtzaroa

- **Hizlaria(k):** Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Reparaz, Xabier
- **Erref:** ARB-009/004
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:03:53. **Bukatu:** 00:06:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Txikitako kontuak: eskola, jolasak...

#### Transkripzioa

-Ta zuk bestaldea, haurra ziñenean ta akordatzen zea, txikiteko gauzek eta?

-Txikiteko gauzek? Bai.

- Eskola ta faten ziñen?

- Bai, eskola, hemengo eskolak eitteko denboran, [Larrean zen...gendun] guk.

- A bai?

- Bai.

- Eitteko zegon.

- Bai. Maria Luisa zuen [...]. Larrea, Jose Inaziokin ezkondua zen... Maria Luisa. Haik bizitu zian Larrean zan [...], bueno beste etxe batian.

- Han eskolan.

- Eta han egokitu... eskola hau.

- Maistrua bizi zen han.

- Bai, goyen goyen, [...]. Orduan ez giñaken guk diruik, eta karameluak kromuekin, ta jartzen zien kromuak ee.. hoik.. burnizko bai... [...] eta beste batzutan berriz kartonak eta haik jartzen geñuzen, hola, taka, zein ateratzen ziñuban gehiena, ta puntu bet eta, hola.

- Eta beste aldea, soka soka...

- Sokakin ere bai, bai. Ta gero, attokakan.

- Attokakan?

- Attokakan. Lur montonien egurra sartu ta bata bestiakin, zu sartzen ziñuen harria hurrengo sartzen zuenarena mugitu, ta mugitzen baziñuen, zuk irabazten ziñuen.

- Ta gero zer egiten zuen, bota makila?

- Bai.

- Eta bila jun.

- Bai. Gero kapelusa ere bai, kapelus zentzerrus!

- Hori zer da?

- Kapelus, e, osea, kuadrilla biltzen giñen ta paratian kontra galtzen zuena zeon paratian kontra beida, ta ya, hor esaten geñun: “kapelus, zentzerrus!” Eta denak hor denak errostatzen giñan ta ordun bata bestian bila. Osea, han zeonak bestiak bilatu behar zittuen ta lehenbizi harrapatzen zuena, atzea hura parattian kontra. ¡Qué trabajos, eh!

- Bai. Ta bestela eskolan meistru bat akordatzen zaa edo meistra?

- Meistra bai. De Castro Urdiales giñuen guk meistra, e... Ez da alabatzeagatik baina lixta nitzen eskolan.

- Bai, e?

- Bai. Beti lehen.

- Bai, e? Ona orduen?

- Bai. Ez da nere burua jasotziagatik, baina egiya da. Eta, esto... kantatzen giñuben... espera, nola da? “Niñas si queréis venir vamos a la batalla, vamos a defender a nuestro santo Papa... vendrá...” eztakit zer “antes defender...” Espera, galdu naiz.

- Bai, kantu hura, ez dakit.

- Bai.

- “A defender a nuestro...”

- Gero berriz´e... ordun ze himno klase zegon.

- Bai, karo .

- Eskolai, eskola guztiai buelta osua ematen giñon, himnoa kantatu behar, ta gero kanpora.

- Errepublikara garaian?

- Hori da, bai, bai.

## 1.2. Elikadura

- **Hizlaria(k)**: Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Reparaz, Xabier
- **Erref**: ARB-009/009
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:10:11. **Bukatu**: 00:10:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Taloei eta ogiari buruz hitz egiten du.

### Transkripzioa

- Gero taluek eta ere egingo ziñuen zuk?

- Talue ez dut ezautu itxen. Osea, bai, beste etxan baten ikusi dut, baiña etxean ez, eske gure amak egiten zigun ogiya, ta saltzen zuben ogiya.

- A! Saldu eitten zittun?

- Bai, saldu eitten zuben, bai, asike...

- Harekin zuk...

- Osea ke, talorik ez...

### 1.3. Arbizun gertatutako suteak

- **Hizlaria(k):** Berastegi Berastegi, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** ARB-037/001
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Herrian gertatutako suteen inguruko kontuak.

#### Transkripzioa

- Noiz gertatu zen erreketak hura?
- Oi da, fetxik enuke esaan, fetxa, ze urtetan ein tzen enuke esaan, zela abuztuben bei, bei-ta... guañiken ee, emen elkarri launtzen dakiyo ba zeran, e... gari biltzeko gareiyen, elkarri launtzen besteai.
- Baina duela, orain, zenbat urte gutxi gorabehera?
- Izein ttu ba... ogeiren bat urte bei, bäi, ta... guañiken ee egun ortan, bazkaltzen ai zien, etxalde oitako gariyek einda. Orduben tximist'at sartu zen? ola? plazako orti? ta kruzetu zuben ortzeño, ta amabi err-, itxe erre zien, bei. Bah, azidenteik ez zen gertatu, gariyek eta osea...
- Ez zen inor hil...
- Ez! ez zen iñor il, ez.
- Eta aziendak eta...?
- Ez, denak salbatu zien.
- Bai, denak, pixkanaka ateratzen eta...
- Bei, ta au gaela... amar urte? erre zen beix.
- Zein, hau? hau ere?
- Au, au, au, au...
- Orain hamar urte?
- Kasualmente beiyek jeixten ari nintzen ni, kortoxirkuitu at edo ze izen tzen? lastue iduitzen duun lekuben, goyen, ta... jeh, suba! gero sub oi? ta, esne-baldia erdeita, erdiya, jeitxita nakan; baldea, esnia, arri eman? (...); bota nuben baio... ordureko, puh! asi zen ee, garmenduen e...
- Esku zeneukana, e?
- Eskuben, bei ta gio, bouh!... beleixe garri-, ta asi nitzen ee garraxi te... "suba, suba", puah!... kixkäldu zen d'enzap.
- Bai? etxe guztia?
- Bei, raso.
- Eta hemen, aldamenean ere bada...
- Ez! etzen pasa p'or; oi geos erre zen beix, oi geos ë... eztait nik, lau-bat urtia? o, nola zen? orti... ordubuen erre zien, bat, bi, iru, lau; lau erre zien, bai. Orr ee ez zen ezer gertatu, azidenteik or... bei; ola.  
Ta gio? goiyen ee bai, goiyen, beste... an ee, beste tzean, zenbat zien? amabost ustë ot zela, eztakit, dena elkarri bilduta dao erriy au, ta dena obres beteta! egun guzien...
- Kale Nagusi bat bezala...
- Bei-ba, lastos beteta, flora bezela, ta goiyen artu zuben ta, buuuh!...

## 1.4. Arruazuko kanpaiak

- **Hizlaria(k):** Berastegi Berastegi, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** ARB-037/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:02:22. **Bukatu:** 00:03:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- **Laburpena:** Arruazun kanpai-jotze txapelketak egiten ziren.

### Transkripzioa

- Gero hemen bada beste herri bat, Arruazu nik uste, hor jotzen dituzte kanpaiak edo, ez? egiten dute halako, konkurtso modua edo?
- Bai...
- Arruazun da?
- Bai, Arrazu bei.
- Izan zara inoiz ikusten?
- Bei, izan neiz... eondu neiz bai, ellear, noiz izaten? Guai ezta it eätten dubien, e? guain Arbazun eätten dubien ee... bei.
- Eta zer da, segun nor hiltzen den edo zein ezkontzen den edo... kasuen arabera...
- Eeez! ez...
- Jotzen dute modu diferentean edo?
- Bei, klaro! Or, ezta ideirikan ze... ixtorio ematen diyuen beya or, kanpeonatuak bazuntzien, bei, aik ematen tziyuen, arbazuarr oik ee, bazubien afiziyo pixkat, an erriyan jotzeko... bei.
- Han jakingo dute nola, zer dela-eta nola jotzen duten eta...
- Bai, len esan duzunek jakiñen du... zuk esan duzun apezak (...).
- Bai, Satrustegi...
- Satrustei, puh!... oixe.

## 2. Lanbideak

### 2.1. Kanpora lanera

- **Hizlaria(k):** Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Reparaz, Xabier
- **Erref:** ARB-009/005
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Kanpoan zerbitzatzera joateaz hitz egiten du. Berari ez zitzaion tokatu kanpora joan beharra.

### Transkripzioa

- Eta gero jende asko joaten zen serbitzea eta kanpora ta...
- O, denak serbitzen [...]
- Bai, zuri ere tokatu zakizun?
- Festetako autobusa etortzen zen serbitzeko jendiakin.
- Bai, e?
- Izeba Frantziska zuben hura, beno izeba baiño gehio...

- Bai, Txulokua esaten dezu, ezta?
- Segunda tía o...
- Bei, bei.
- Pues, harren denboran, harren denboran autobusa etortzen zen.
- Ta noa joaten ziren autobusak?
- Donostin gehienak. Iruña aldia baiño gehio Donostia. Bai, bai, bai.
- Zuri ez zakizun tokatu?
- Ez, ni hemen.
- Zu... hemen serbitziakin nahikoa... ordun.
- Bai.

### 3. Familia eta harremanak

#### 3.1. Familia

- **Hizlaria(k)**: Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Reparaz, Xabier
- **Erref**: ARB-009/006
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:07:23. **Bukatu**: 00:09:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Bere aitona Juanitok etxea eraiki eta taberna jarri zueneko kontakatu du.

### Transkripzioa

- Aitzazu, bederatzi senide izandu giñen.
- Bederatzi senide?
- Eta gure ama urte batekin /urtiatekin/ gelditu zen amaik pe. Eta gero aittuna, eske egin zen ezkondu bigarren alditan. Eta, oi, gure amak ere, Jesus! Kejatzan zen aittunai, ama, osea, madrastrangatikan. “Ze ein bihar dut, haurra, zu alaba ta bestia andria dut eta ia ze ein bihar duten nik!”; oso suerte txarrekoa zan gure ama. Umek ordeko hemen Joxen [ixkiñara ekarri zaubien]. Baiña ke ba! Ez emen zuen [hilabete ein]. Bere amiña [...], “Amiña, ni etxea! Amiña, ni etxea!” ta “Baiña aittek ze esan bihar dizu / bihaizu/? Ez zaittu amettituko!” eta “Ni etxea!” eta eman emen zuen [...] etxea. Geo, nere aittuna horri esan omen zion: “mutikoa, neskato honek ez dik ba oneik ta. [..] Itxura ere bizi zen, [suge herrosa] bat jarri omen zen, gero esan omen zuen: 20 urteko ume banazka ere, nik ez bat eman umekorik ordeko. Haurra, hartzazu saria ta zuaz kardeberetara. Ze kolejiyu bilatzen zuten, eh! Kardeberak ba al dakizu zer zien?
- Ez. A! Belar txarrak...
- Pateta tartien dabilen e...
- Belar txarrak...
- Jende asko joaten zen kardaberak biltzea.
- Gero zer ematen zuten dirun bat edo hura kentzeagatik edo nola?
- Ez, ez.
- Oi soruen, souen belar txarrak kentzea.
- Ba, gero gure amak esaten ziguen, Altsasun bestela han serbitzen lagunak eta, hara madrastra: “La hicieron de almíbar y todavía sabía amarga”.
- Hori esaten zun zuen amangatik?
- Bai, “La hicieron de almíbar y sabía amarga”. Hola...

## 4. Baserria

### 4.1. Soroan lanean

- **Hizlaria(k)**: Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Reparaz, Xabier
- **Erref**: ARB-009/007
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:09:09. **Bukatu**: 00:09:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Zer lan egiten zuten etxean, soroan&hellip;

### Transkripzioa

- Lanak eta aurrero asko egin dezue emakumiek eta...
- Soruen.
- Soruen, soruen gaztiek ezta?, ta itxen gero zaharraguet eta... sukaldien
- Horregatik goizeko [utuperra] ta joateko, hurrenian goizeko bostetan igual belarra [ebaitzea] ta gero gosaia egin. Gosaia, badakizu, eltze pateta no faltaba.
- Gosaria zuek ematen ziñubien?
- Bai.
- Bai, bai hola, emakumiek eta bueno, neskatuek eta...
- Emakumiek-eta pues belarrai buelta ematia, belarra barratzia... holako

kontubek.

-Bai, ta gizonak gosaldu ta bazkaldu ta egiten zuen soruen askotan.

-Souen! Ta geo bazkaldu ta halako ezponda [...balin bazuen], han siesta pixket...

-Siesta iten zuen.

#### 4.2. Emakumea

- **Hizlaria(k):** Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Reparaz, Xabier
- **Erref:** ARB-009/011
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak  
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Emakumeak sororan nola tapatzen ziren azaltzen du.

#### Transkripzioa

- Ta, bestela, sorora... jendea sorora joaten zenian da, emakumik tapatu itten tzin ezta?

- Uuu... sudur punta gehien bakarrik, ez giñun beztu bihar e. Ke ba!

Akordatzen naiz [Mahatsan... Angeles] bizi da gure gaiñin. Modista zen eta bizitzen zien Kontxin kalin eta... Este... Fermiñoneko Juan hemen [ziharrekale] hontan soroa [etortze zenin]. Jo, Juan guantiekin pateta ateatzen. Ikustia guk!

- Guantiekin.Gauza berria.

- Ze nobedadia e!

- Nobedadia.

- Eta hombre, ez giñuen beztu biher, sudur punta, begiyek juxtu-juxtu tapatu ta pañelua ederki jarri ta... ez beztutzeko!

- Orain alrebes!

- Orain beztu ein biher! Urduan ez beztutzeko!

- Diferentziya.

- Bai.

#### 4.3. Belarra

- **Hizlaria(k):** Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Reparaz, Xabier
- **Erref:** ARB-009/012
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Belarra ebakitzera joaten zirenekoa kontaktzen du.

#### Transkripzioa

- Ta gero belarretara ta...

- Baita ere.

- Areñara ta, bai baita ere... haik bronkak, buuu...  
 - Zer ba?  
 - Txanda batian Areñaa joan giñen ta...  
 - Bi karri ekarri behar gure gizon horrek, zu!  
 - Lehenbiziko karrua ta gero endeitz hura. Sokako e, sokara lotu zian beste karrua, ta keba, oi... euki zakiun [...]...  
 - Bi karro?  
 - Bi karro arbi. Bat ez ekarri, eta bi ekarri behar. Baiña, klaro, [Areñaa....] ta bi ekartzia, pues bentaja handiya zuben.  
 - Klaro, biaje [...].  
 - Klaro. Gero itxea ekarri eta zea ere, goiko burni hoik dauden tokira atera belar guztia maineretan, [ez zen hobia].  
 - Hor lan handiya [egiten zuten].  
 - Bai.  
 - Hor gizonak bakarrik.  
 - Bai.

#### 4.4. Txerria hil

- **Hizlaria(k)**: Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Reparaz, Xabier
- **Erref**: ARB-009/015
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:15:29. **Bukatu**: 00:16:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Txerria hiltzen zenekoaz hitz egiten du.

#### Transkripzioa

-Ta gero txerrik hiltzen zubenin da...  
 - Eh?  
 - Letxonak biltzen zittubenin, ordubren festa izaten zen, ezta? Fiesta...  
 - Festa, bueno....., guri, ama zen, nere ama zen Goiko hargiñeana eta anaia zakan han ezkontute zeon da ta anaia hura ere ekarri beharko zuben Santu Guztiten eta txerriye hiltzekuen... Geo festa itten zen txerriya hiltzekuen.  
 - Puska ematen zen gero parientiei.  
 - Gero tripotak partittu, lehengusiei o illebei o senidiei, tripota bere gibel puxkakin partitzen zen.  
 - Eta urtiakin zenbat txerri...  
 - Itxe bakoitzien?  
 - ...hiltzen ziren? bai, bat edo bi?  
 -E.. gehien hiltzen zuenak bi. Bi, bai. Batekuek asko.  
 - Batekuek?  
 - Bai, batekuek asko, baiño bi ere bai.  
 - Gero pernillek eta... gatzetan.  
 - Gatzetan, eta... ba ongi kontserbatzen zien. Jendiek e tokiya badakizu ordubren almazen o, oain almazen esaten dieu, baiño orduen txoxak eta izaten zien, eta han zeon ez ongarrri ta ez ezer ere ez, humedadeik ez... Eta ez dakit zenbat egunetik buelta ematen zakiyon urdeiei. Urdeie gatzien jartzen zittunien, ta gero ez dakit zenbat eguneta buelta ematen zakiyon, bai.

#### 4.5. Txerria hazi

- **Hizlaria(k):** Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Reparaz, Xabier
- **Erref:** ARB-009/016
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:16:53. **Bukatu:** 00:18:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Txerriak hazteko, ezkaratzean ematen zitzaien jana txerrikumeei. Bezero batzuek gaua tabernan pasatzen zutenak eta harritu egiten ziren hainbeste euli ikusita.

#### Transkripzioa

- Txerriek hazitzekuan da, basuan egoten zien ta gero ekarri egiten zien, ezta?
- Bai.
- Ta gero hemen ematen zenien....
- Gero itxen.
- ... arbiyek eta...
- [Pentsa ezazu], hazitzen zen orduan euliye, mmm, alegiya, "por carros"! Euliye.
- Txanda batian bi ajante bat etorri omen zen gure etxea ta, gure amak [...] gizon hori, ta gora etorri zen. Euliyek eskaratzen [...] eta euliyei gizon hura pasien ta, "bruu" jasotzen omen zien, ta "Jesus! hor zion, ba, oain´e gizon hori". [guri zeatzen ez...] ta bera pasatzian, "bruu" jasotzen omen zian.
- Euliya asko orduan.
- Euliya kantidadia.
- Ta barretik-eta jende asko pasatuko zan, ba, hola, kanpoko jendia ta?
- Bai, beti ezautu dugu jendie, oai ta... Oai´e bastante [darabigu] ta, beti, beti jendia.
- Ta euskeraz, euskeraz zakittenak ta euskeraz ez zakittenak ere pasatuko zian...
- Baaa... bai, ta zenbat kastellano sortuko zen? [...] euskeraz dena.
- Bai, euskeraz dena. Ta bazkaiek ematen zenittuen... Bazkaiek eta...
- Bai, bazkaiek. Afa... hombre, bastante [guatzik egiten giñuen].
- Guatzik ere bai...?
- Gure amak jarriko zittuen guatzik, baitta ez dakit nun ere,... bai, bai.
- Lo egiten gelditzen zien.
- Lo egittea, bai, bai.
- Posada bezela edo?
- Hori da, bai.

#### 4.6. Behiak

- **Hizlaria(k):** Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Reparaz, Xabier
- **Erref:** ARB-009/024
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:26:38. **Bukatu:** 00:27:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena:** Behiei buruz hitz egiten du.

### Transkripzioa

- [Ez zegoen kuartorik,... hantxen ez da gelditzen].
- [Ez dabil]... behiek eta ahuntzek eta bai...
- Behiek eta...
- Ta zuk baziñazkazuben, esto, idiyek o behiek?
- Guk?
- Bai. O ez ziñakazun?
- Iriyek, iriyek, iriyek zittuen! Gero, azkenea, pues, behiren bat, [baiña], bai, iriyek, iriyek.
- Iriyek. Lana itten zuen iriyek garai hartan.
- Ta gero soruei buelta emateko ez zegoen traktoreik. Ezautu giñuken geo... bueno, [etxien ezautu giñuben traktoria], baiña ez zegoen traktoreik, eta ganaduekin ematen zekiyon lurrai buelta. Lehenbizi, pixket urratu eta gero makina edo "bravan" o demontre!
- Ta behiei, zera, izena jartzen zakiyoen, ezta?
- A, bai... batian Morika, bestian... izena, bai.
- Ongi tratatzen zakiyen behiei hola...
- Aitzazu! Ardiyek´e gehienak izena bazubien. Oain ez dakit. Ardiyek´e bai e!

## 4.7. Behorrek bedeinkatzera

- **Hizlaria(k):** Berastegi Berastegi, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** ARB-037/003
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:03:22. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Antzinako ohiturak. Jendea behorrek hartuta joaten zen elizara, bedeinkatzera.

### Transkripzioa

- Alorrek eta aziendak eta, bedeinkatzen ziren?
- Aziendak... beeikatzen zien beti, bio-, beorrek geyenak bedeinka tzien, elizai buelta ematen zakiyon leno.
- Bai?
- Biorrak artuta.
- Behorrekin?
- Bei.
- Beste animaliekin ez?
- Ez! besteik ez, biorra. Geo? e... artua beeikatzen zubien ba, elizen e? eta grano puxka banak e, denei ematen zayekin; zerriek basuen bagiñuzkiyen ee? gue amonak emaan tziun e ga. Bakizu, beeiketub oi, kuantu? eztakit zer tzela... kostunbrea!
- Ze egunetan zen hori? behorrek-eta eramaten zirenekoa? San Blas ote?
- San Blas, San Blas izeen da, bei.
- Orduan jendea joaten zen elizara behorra hartuta? besterik ez? beste animaliarik ez?
- Beorra, bai.

- Eta elizaren inguruan buelta ematen zuten?  
 - Buelta, bei, iru buelta ziela uste ot, bei.  
 - Eta gero?  
 - Gero? bakoitza bere itxea.  
 - Apaizak elizatik atera eta...  
 - Bei, bai, bei, bedeiketu te kontub oi. Ta guai're baa kostunbria, ya. Kotxe berri bet ekartzen baa, olako... ze oetan? bueno, urtin biltzen dien denak, e? bayä egun batién? beeiketzen ttu, eliz atarien? da...  
 - Eta esan dezu kandlekin zeredozer egiten zela?  
 - Bai, kandelak beeika zitui? zittu(e) bai, ta guaañ ere bedeitzen die.  
 - Eta kandelatik, badakizu, erretzean erortzen den zera hori (ezkoa), hori ez zen botatzen behorren gainean edo?  
 - Ez, ez, ez... emen ez.

## 5. Aisia

### 5.1. San Juanak

- **Hizlaria(k)**: Berastegi Berastegi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Reparaz, Xabier
- **Erref**: ARB-009/019
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:20:49. **Bukatu**: 00:22:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juanetan nola dantzatzen zen kontatzen du.

#### Transkripzioa

- San Juanetan ta...  
 - Bai, diferentia [zian] San Juanetan, e... San Juanetako zortzikoa... Herri askotan ere egiten da ta hemen ez [be egin]... Zaharrena hau zen eta gero utzita [...]. Nik ezagutu dittut azkeneko zortzikuen Kondian Felix, Motzan atzekaldeko Antonio... gehio ez dakit. Ariñak izaten zien dantzari horiek.  
 - Zer egiten zuen zortzikuen?  
 - Orduen?  
 - San Juanetan ez?  
 - Orduen, pues, neskato ta mutiko fila haundi bet jartzen zen ta eskuti heldute pañelua, batetik bestea pañeluakin, eta bueltak ematen zittunien kantatubaz ze hau...  
 - “Maria Lonbrenen zaldiya”?  
 - E?  
 - “Maria Lonbrenen zaldiya”?  
 - Bai. “Maria Lonbrenen zaldiya, salto ta brinko larriya”. Bai, hura. Ta geo gelditzen zenien, pues, jota kantatzen... jota dantzatzen zuen. Ta gero, nola egitten da saludo hori aurrekuko dantza hori, pues estilu hortaa Ayuntamientukok egoten zen balkonien ta [harri zeatzen ziyoen].  
 - Plazan?  
 - Plazan, plazan bai. [Nik] oaindiken ´e Josetxo [Jostana] oain dala hiru urte edo lau urte joan zen, Ameriketaa joan zen, eta hura etorri ta ez ziela lehenoko festak.  
 - Karo, festa asko kanbiatu da.  
 - Dena.  
 - Aurrero, musika ta jendiak kantatu ta... jendiak kantatu...  
 - Hoooola, bai. Nik dantzán ezautu dittut Paula Mari Anttoniña ta... amiñek!

eta dantzan han plazan. Eta goai ezta haurrik ez da dantzatzen.  
- Korruen ezta? Jendea korruen jartzen zen ta...  
- Bai, bai.

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Ixurkonea jaiotetxearen egitura (ARB-007/002)**

Bere etxearen, Ixurkonearen, egitura nolakoa zen azaltzen du.

### **2. Belarra ebaki eta eramaten (ARB-007/003)**

Belarra nola ebakitzen zuten azaltzen du. Gero belar horrek urte guztirako balio behar izaten zuen.

### **3. Soroko lanen prozesuak eta tresnak (ARB-007/004)**

Soroan zer prozesu zeuden azaltzen du: lehenengo, lurra landu; geroago, erein (hori eskuz egiten zuten familia osoaren artean); bakandu; eta udazken aldera bildu (horretarako sega erabiltzen zuten). Bildutakoa gurdian kargatu eta idiekin eramaten zuten.

### **4. Eultziak (ARB-007/005)**

Eultziak: pikorra ahotzetik bereiztea larrinean.

### **5. Errotan ehotzea, eta hori nola ordaindu (ARB-007/006)**

Urte guztiko garia errotara eramaten zen han ehotzeko, eta laka kobratzen zela ehotzeagatik kontatzen du.

### **6. Ogia etxean egiten zutenekoa (ARB-007/007)**

Ogia etxean egiten zuten emakumeek. Nola egiten zuten azaltzen du. Zer ogi mota zeuden eta ogi bakoitzak zenbat denbora irauten zuen aipatzen du.

### **7. Arbiak prestatzen (ARB-007/008)**

Arbia nola prestatzen zuten kontatzen du; txerri-janerako erabiltzen zuten.

### **8. Artoa (ARB-007/009)**

Artoa, garia bezalaxe, errotan ehotzen zuten. Artoa urri aldera biltzen zen, eskuz. Artoaren hostoak ganaduari emateko aprobetxatzen ziren. Artoa nola biltzen zuten azaltzen du.

### **9. Taloa eta artoa (ARB-007/010)**

Taloe asko jaten zen lehen, ogiaren ordeaz. Artoa ere jaten zen, taloa baino lodiagoa zen.

### **10. Baba, oloa, txitxirioa (ARB-007/011)**

Nekazaritza-produktuez hitz egiten du: baba, oloa, patata, txitxirioa...

### **11. Soroan lanean (ARB-007/012)**

Soroko lanaz hitz egiten du: egunerokoa, siesta, soroan bertan bazkaldu...

### **12. Idiak (ARB-007/013)**

Idiei buruzko kontuak aipatzen ditu: ferratzea, osatzea...

### **13. Egurra (ARB-007/014)**

Egurra basotik nola jaisten zuten kontaktzen du.

### **14. Orbela (ARB-007/015)**

Orbela basotik ekartzean zertarako erabiltzen zuten, eta nola gordetzen zuten kontaktzen du.

### **15. Familiaren gaztaina-arbolak (ARB-007/016)**

Familiaren jabegoa ziren gaztaina-arbolei buruz hitz egiten du.

### **16. Familiaren intxaur-arbolak (ARB-007/017)**

Familiaren jabegoa ziren intxaur-arbolei buruz hitz egiten du.

### **17. Ahuntzak (ARB-007/018)**

Ahuntzak eta ahuntzainak.

### **18. Behiak (ARB-007/019)**

Behiei buruz hitz egiten du.

### **19. Zezenak (ARB-007/020)**

Zezena basoan aske zebilenerokoa kontaktzen du.

### **20. Txerriak hazten (ARB-007/021)**

Txerriak basoan hazten zituztenekoa.

### **21. Txerriak: zotolak (ARB-007/022)**

Txerrientzako txabolak basoan nola egiten ziren.

### **22. Txerria hiltzea (ARB-007/023)**

Txerria hiltzen zutenekoa kontaktzen du.

### **23. Baratzea (ARB-007/024)**

Baratzeak.

### **24. Txerria hil ostekoa (ARB-007/025)**

Txerria hil ostean zer egiten zuten kontaktzen du.

### **25. Industrian lanean (ARB-007/026)**

Fabrikan, galdategian lanean ibiltzen zen, eta bere lanaren nondik norakoak kontaktzen ditu.

## **26. Txabolako zubia bota zutenekoa (ARB-007/027)**

Txabolako zubia erori eta berreraiki zutenekoa kontatzen du.

## **27. Auzolana (ARB-007/028)**

Auzolana eta "aatea" (edatea).

## **28. Kintoak (ARB-007/029)**

Kintoei buruz hitz egiten du.

## **29. Elkartasuna: erkideak (ARB-007/030)**

Erkideei buruz hitz egiten du.

## **30. Ehundegia (ARB-007/031)**

Ehundegiari buruz hitz egiten du.

## **31. Hautzaroko aisialdia eta eskola (ARB-008/003)**

Txikitako gauzak: eskola, kantak, jolasak...

## **32. Kanpora lanera (ARB-008/004)**

Kanpoan zerbitzatzera joan beharraz hitz egiten du. Bera hainbat lekutan ibili zen neskame.

## **33. Koinatuarekin ezkondu (ARB-008/005)**

Bere ahizpa umea izan zuenean hil zen, eta haren senarrarekin ezkondu zen Felisa.

## **34. Emagina (ARB-008/006)**

Herriko emagina Hermenegilda.

## **35. Ehultziak (ARB-008/007)**

Soroko lanei buruz hitz egiten du: nork egiten zuen lan, eultziak eta abar.

## **36. Lixiba (ARB-008/008)**

Etxeko lanak: lixiba...

## **37. Orbela (ARB-008/009)**

Basoan orbela biltzen zenekoa azaltzen du: lotetan banatzen zen gertuen zegoen baso zatian.

## **38. Egurra (ARB-008/010)**

Basotik egurra ekartzen zutenekoa.

## **39. Behiak (ARB-008/011)**

Behiak basoan eta etxean.

## **40. Txerria hil (I) (ARB-008/012)**

Txerria hiltzean, senideei puska ematen zitzaiela azaltzen du.

#### **41. Elikadura (ARB-008/013)**

Taloari buruz hitz egiten du: noiz jaten zuten, nolakoak ziren...

#### **42. Txerria hil (II) (ARB-008/014)**

Tripota, txistorra, pernilak... izaten zituzten txerria hil ostean.

#### **43. Eliza (ARB-008/015)**

Eliza: angelus edo kera, bezperak, ogi-sepultura.

#### **44. Almirantea (ARB-008/016)**

Braulio almirantea (aguazila).

#### **45. San Juanak (I) (ARB-008/017)**

San Juanak: festak, kantak, parranda...

#### **46. Inauteriak (ARB-008/018)**

Inauterietako ohiturez hitz egiten du.

#### **47. San Juanak (II) (ARB-008/019)**

San Juan ostean, belarra ebakitzera Arañara joaten zirela kontatzen du, besteak beste.

#### **48. Emakumea (ARB-008/020)**

Gogoeta egiten du: zeinen gogorrek ziren egin beharreko lanak; emakumeak zergatik joaten ziren sorora lanera arropaz estalita...

#### **49. Eskola (ARB-008/021)**

Maisuak nolakoak ziren azaltzen du. Eskolan gutxi ibili zen.

#### **50. Argia (ARB-008/022)**

Argindarra

#### **51. Nekazalgoa (ARB-008/023)**

Soroan lanean aritzean, tapatu egin behar zutela kontatzen du.

#### **52. Burdinak erakusten (ARB-009/001)**

Tresnak erakusten ditu: laratza, otajakia...

#### **53. Jaiotetxea (ARB-009/003)**

1919an jaio zen Ubeldeko etxean. Etxearen egitura.

#### **54. Garai hartako bizimodua (ARB-009/008)**

Hainbat kontu aipatzen ditu: zer jaten zen, nola bizi ziren, zeinen latza zen bizia...

#### **55. Elizan (ARB-009/010)**

Eliza: sepultura.

#### **56. Aldaketak (ARB-009/013)**

Aspaldi gaur egun baino borondate hobea omen zen: elkarri laguntzeko joera handiagoa zegoen.

#### **57. Zorrak (ARB-009/014)**

Bere aitona Juanito zorretan sartu zen etxea eraiki eta taberna jartzeko, eta azken letra ordaindu zueneko kontakatu du.

#### **58. Bideberriko lanak (ARB-009/017)**

Aitona gurdizaina izan ze: diputazioarentzat egiten zuen lan errepidean harria txikitzen, eta nola ibiltzen zen azaltzen du.

#### **59. Argia (ARB-009/018)**

Argindarra

#### **60. Almirantea (ARB-009/020)**

Braulio almirantea.

#### **61. Kintoak (ARB-009/021)**

